

ARAZO EGOERA

MENDIA NOLA, URA HALAKOA!

ARLOA: Gizarte Zientziak eta Balio Zibikoak

MAILA: LHko 2. zikloa

2030 AGENDA KO HELBURUAK

Jarduera honekin 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburu hauek lantzen dira:



TESTUINGURUA

Ura gure etxera urtegi batetik edo ur biltegi batetik dator. Baina haietara eurtik edo mendiko erreka eta azpiko uretatik iristen da. Gehienetan lur gaineko urak zaintzen ditugu (errekak, ibaiak...), edaten dugun ura garbia eta kalitatezkoa izan dadin. Baina lur azpiko urak kutsatuz gero, zer gerta daiteke gure urtegi, biltegi, erreka eta ibaietan?

ARAZOA

Gure inguruko mendien lur azpian erreka daude, eta haien daramaten ura inguruko urtegi, erreka eta ibaietara doa. Mendian egiten denak ba al du eraginik ur horietan?

XEDEA

Mendian egiten diren ekintza askok lur azpiko urak kutsa ditzakete, eta, ondorioz, edateko ura edo/eta gure inguruko erreka eta ibaiak ere bai. Hori ekiditeko, mendia erabiltzen duten taldeei lur azpiko urak ez kutsatzeko jokabideak jakinarazi behar zaizkie: abeltzain, baserritar, ehiztari, espeleologo, mendizale, korrikalari, zientzialari... Esku orriak edo/eta kartelak sortuko dira.

HELBURUAK

- Inguruko mendien ezaugarri, babes maila eta harri motak ezagutzea eta Euskal Herriko beste mendi kateetakoekin konparatzea.
- Harriak zergatik zatitzen diren eta erliebea zergatik higatzen den azaltzea (sedimentazioa eta higadura).
- Inguruko ur masak eta ur ibilbideak identifikatzea, eta lur azpiko urak nola sortzen diren, nola azaleratzen diren eta haietara nola irits daitekeen azaltzea.
- Gizakiak inguruko mendietan egiten duen esku hartzea ikuspegi kritikoarekin aztertzea, jasangarritasuna aintzat hartuta eta alderdi hauek bereiziz: basogintza, abeltzaintza, nekazaritza, mendizaletasuna, ehiza, espeleologia... deforestazioa, gehiegizko ustiapena eta kutsadura.
- Ingurune naturala kontserbatu eta babesteko eta hondamendi naturalak prebenitu eta txikiagotzeko neurriak proposatzea.
- Ingurumena zaintzeko ekimenak eta horretaz arduratzen diren taldeak inguru hurbilenean kritikoki aztertzea.

ATAZA

Inguruko mendiak erabiltzen dituzten gizarteko taldeei zuzendutako kartelak egitea, lur azpiko urak babesteko prebentzio neurriekin.

JARRAIBIDEAK

- Urak beren etxeetara eta ondoko erreka edo ibaira iristeko egiten duen bidea eta inguruan egiten diren jarduerak **marraztu**.
- Naturan hezten proiektuak gomendaturiko **bideoa ikusi** (gaztetxoentzat), eta, ondoren, webgune horretan dagoen urari buruzko beste bideoa ikusi (ura, helduentzat), eta, lur azpiko uren bidez eta haien kutsatzeko arrisku eta ondorioez **hitz egin** ikasgelan.
- **Esperimentu interesgarria:** zer da akuifero bat?
- **Irteera egin** inguruko urtegi, ur biltegi edo erreka edo ibai baten jaiolekura, eta, hango prozesuak ezagutzeaz gain, lur azpiko urek duten garrantzia aztertu.
- Lur azpiko urak kutsatzeko **arriskuak taldeka aztertu**, sektore baten papera hartuz: basoko jabeak eta langileak, abeltzainak, nekazariak, mendizaleak, ehiztariak, espeleologoak, ikasleak... (jarduera posiblea.)
- Lur azpiko urak kutsatzeak erreka eta ibaietako izaki bizidunetan izan ditzakeen **ondorioak ikertu eta komunikatu**.
- Lur azpiko urak ez kutsatzeko neurriak adierazten dituzten **eskuorriak edo/eta kartelak egin**, sektore bakoitzari zuzenduak.
- Lur azpiko urak ez kutsatzeko **neurriak udalari jakinarazi**, EA21en bidez edo bestelako haurren foroen bidez.